

6. Bezeroekiko Harremanak

Lehenengo, fabrika gutxi batzuekin egingo dugu lan, honela, enpresaren arazoak lokalizatu eta konpondu ahal izango ditugu eskala txikiagoan. Gero, esperientzia handiagoa lortu dugunean, enpresa gehiagorekin jarriko gara kontaktuan gure negozioa handituz. Bezero berriak erakarriko ditugu gure zerbitzuak eskaintzen eta dauzkagun bezeroen esperientziak erabiliko ditugu iragarki gisa. Horrez gain, gure produktuak eta zerbitzuak hobetuko ditugu bezeroak mantentzeko. Bezero onuragarriak ezinbestekoak dira proiektu hau martxan jartzeko eta horregatik bezero egokiak edukitzea oso garrantzitsua da.

Bezeroen keak, astero fabriketara doazen kimikariek jasoko dituzte egingo duten txostenean eta enpresa bakoitza ezberdina denez, laguntza pertsonalizatua jasoko du enpresa bakoitzak gure garapen eta segurtasun taldeengandik. Horrez gain, gure web orrian edo gure telefonoan bezeroen galderak eta keak ere jasoko ditugu.



